

TERMINOAK ETA BALDINTZAK

Matrikula egitean, baieztatzen duzu Ulibarri Euskaltegia SK-k eskaintzen dituen euskara-ikastaroen kontratazioari aplikatu dakizkiokeen terminoak eta baldintzak onartzen dituzula eta horiek betetzera behartuta zaudela. Ulibarri Euskaltegia kooperatiba-sozietatea da, eta Bilbon du egoitza, Gardoki kaleko 3ko 1. zenbakian. Posta-kodea: 48008. Telefonoa: 944162472 eta IFK F48199673.

Matrikulazioa: Gure ikastaroetan matrikulatzeko, matrikula-orria bete eta dagokion ordainketa formalizatu behar duzu, adierazitako epe eta moduetan. Mailaketa proba egitea gomendatzen da, aurreko urtean euskaltegi batean matrikulatuta egon ez bazara edo titulu ofizialik ez baduzu. Egin beharreko mailaren arabera, talde bat esleitu zaizu, baina maila hori aldatu ahal izango da ikasturtea hasi ondoren egingo den diagnostiko-probaren emaitzaren arabera, HABEk ezarritako betekizunen ildotik.

Prezioak eta ordaintzeko moduak: Prezioak, epeak eta ordaintzeko moduak gure web-orrian daude. Online matrikulen kasuan, ordainketa gure web-orriko ordainketa-pasabidearen bidez egiten da. Aurrez aurreko matrikulen kasuan, ordainketa kreditu-txartelaren edo zordunketa-txartelaren bidez egiten da, edo banku-transferentzia bidez (Kutxabank ES86 2095 0000 74 5060001101).

% 5eko deskontua: matrikula egitean langabezia egotea egiaztatuz gero.

% 15eko deskontua: aurreko ikasturteko ikasleei fidelizazioagatik, irailaren 15a baino lehen matrikulatuz gero (galdetu baldintzak). **Deskontuak 2. epean aplikatuko dira. **Etxebarrin erroldatutakoek Etxebarriko Euskaltegian galdetu beharko dute ikastaroen prezioa.*

Plazak esleitzea: Kontsultatu erabilgarritasuna eta kontuan izan plazak mugatuak direla. Euskaltegiak erantzun dezakeen eskaera baino handiagoa izanez gero, plazak matrikulazio egunaren arabera esleitu dira. Ikastaroaren lehen egunean adieraziko dizugu zein gelatan emango den dagokizun taldea. Ulibarri Euskaltegiak eskubidea du irakaslea aldatzeko, bai eta taldeko ikasle bat maila eta ordutegi bereko beste talde batera aldatzeko ere.

Gehieneko ikasle kopurua ikastaroaren eta esleitutako gelaren arabera izango da, HABEk ezarritako irizpideak errespetatuz.

Plazak ez egotea: Eskatutako maila eta ordutegirako ezin badizugu plaza esleitu, itxaron-zerrendan eman ahal dizugu izena, hala eskatuz gero, eta ordeko ordutegien berri emango zaizu. Onartzen ez badituzu, ordaindutako kopuru osoa itzuliko zaizu.

Talde bertan behera uztea: Ulibarri Euskaltegiak talde bat kentzeko eskubidea izango du, ordutegi eta maila horretarako 9 ikasleko gutxieneko eskaerarik ez badago. Kasu horretan, beste ordutegi alternatibo batzuk erabilgarri daudela jakinaraziko dizugu, eta onartzen ez badituzu, ordaindutako zenbateko osoa itzuliko zaizu.

Bajak: Ulibarri Euskaltegiak idazkaritzan baja jakinarazi zenetik jaso ez dituen eskola-orduekiko proportzionala den kopurua gordeko dio ikasleari hurrengo ikasturtera arte, beste ikastaro batean erabiltzeko. Ikastaroaren erditik aurrera eragindako bajen kopururik ez da gordeko.

Ikasleak atzera egitea: Ikasleak kontratu honetan atzera egiteko eskubidea du, inolako justifikaziorik behar izan gabe eta inolako zigorrarik ezarri gabe, matrikula egiten denetik 14 egun natural bete arte. Atzera egiteko eskubidea baliatzeko, erabakia jakinarazi beharko duzu bulegoa@ulibarri.eus helbidera idatziz, dagokion epea amaitu baino lehen. Proposatzen dugun inprimaki-eredua erabili ahal izango duzu. Ordainketa-frogagiriaren kopia eta matrikularen berrespena eranstea eskatzen dizugu. Itzulketak gehienez 10 eguneko epean izapidetzen dira, banku-transferentzia bidez.

Ikaslea eskoletara sartzen bada atzera egiteko epea igaro baino lehen, berariaz zerbitzuak hasteko eskatzen ari dela onartzen du, eta kontratua bertan behera uztea erabakitzen badu, kontratua ezeztatu nahi duela jakinarazi duen egunera arte Ulibarri Euskaltegiak emandako eskolen proportziozko zenbatekoa ordaindu beharko du. Horrez gain, euskaltegiak, matrikula ezeztatzei aukera emango du, inolako zigorrarik ezarri gabe, ikastaroa hasi baino 5 egun lehenago. Deskribatutako kasuetatik kanpo, ikasleak ezin izango du kontratua ezeztatu.

Atzera egiteko inprimakia:

Honen bidez jakinarazten dizut uko egiten diodala euskara ikastaroari buruzko zerbitzuak emateko nire kontratuari.

Izena eta abizenak:

NAN:

Kontratazio-data:

Data eta sinadura:

Kontu zenbakia (itzulketa egiteko):

Maila edo ordutegi aldaketak: Aldaketa egingo da eskatutako mailan edo eskatutako ordutegian, aldez aurretik onartuta. Ordutegiak apur bat alda daitezke, sarrerak eta irteerak indarrean dagoen araudiaren eta osasun-arrazoiengatik definitutako protokoloen arabera egin daitezke.

Ikasleen betebeharrak: Ikasleek portaera egokia izan behar dute, irakasleak eta ikaskideak errespetatuz. Klasera joan eta bertan parte hartu behar dute, klasearen erritmo egokirako oztopo izan ez daitezke. Klaseetan eskura dezaketen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu behar dute, bai eta euskaltegiak emandako materialen edo sarbide-kodeen konfidentzialtasuna ere, eta materialak ez kopiatzeko eta ez zabaltzeko konpromisoa hartu behar dute. Debekatuta dago ikasleek eskolak grabatzea eta argazkiak ateratzea. Euskaltegiak beretzat gordetzen du klaseetarako sarbidea ukatzeko eskubidea, baldin eta ikasleak baldintza hauetan aurreikusitakoa betetzen ez badu.

Ikasleen asistentziak: Asistentziaren jarraipena HABEren aplikazioaren bitartez egingo da, www.habe.euskadi.eus-en. Eguneroko asistentzia jasoko da, eta hilaren bukaerarako eguneratua egongo da.

Informazio gehigarria: Ikastaroari, prezioei eta modalitatei buruzko informazioa eta matrikula-eredua jendearen

eskura daude idazkaritzan eta gure web-orrian. Posta elektronikoz ere eska daitezke, bulegoa@ulibarri.eus helbidera idatzita. Ikastaroaren egutegia gure web-orrian dago eskuragarri, ikaslearen arloan. Euskaltegiarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, ikastaro presentzial bat ezin bada osorik edo zati batean formatu horretan eman, gainerako eskolen orde, baliokideak edo bidezkoak diren online eskolak eman ahal izango dira. Erreklamazio-orriak eskatzen dituen erabiltzailearen eskura daude.

Datuen babesa: Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua – Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa – betez, interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Ulibarri Euskaltegia SK-k tratatuko dituela (helbidea: Gardoki, 3 – 48008 - Bilbo). Datuen tratamenduaren helburua da ikasleak eta haien ikaskuntza-prozesua kudeatzea eta kontratatutako prestakuntza-zerbitzuak ematea, azaroaren 25eko 29/1983 Legearekin bat, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako eta Euskaltegiak Arautzeko Erakundea sortzekoa, eta interesdunak emandako baimena betez. Datuak etengabe gordeko dira aipatutako helbururako beharrezkoak edo egokiak diren bitartean edo interesdunak kontrakoa adierazten ez duen bitartean.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortzekoak eta Euskaltegiak arautzekoak, xedatutakoaren arabera, datuak HABEri jakinaraziko zaizkio, euskaltegiaren eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatutako ikasleak kudeatzeko, HABEren hizkuntza-gaitasunaren mailen egiaztapena kudeatzeko, eta HABE zein Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta foru-aldundiek ikasleei zuzendutako dirulaguntzak kudeatzeko, administrazio publiko horiek guztiek eman beharreko dirulaguntzak kontrolatzeko beharrezkoak diren datuak jaso eta eman ahal izan ditzaten, gainfinantzaketarik gerta ez dadin.

Baimena ematen diot HABEri, aurkakorik berariaz adierazi ezean, nire datuak erabil ditzan HABEren dirulaguntza lerro berrien eta euskalduntzearen arloko programa eta baliabideei buruzko informazioa jasotzeko eta HABE enkargatutako ikerketak eta gogobetetze-inkestak egiteko. Aurka egonez gero X jarri ondorengo laukian. ☐

HABEren zuzendari nagusia izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna. Tratamendua beharrezkoa da lege ezarritako betebeharrak gauzatzeko.

Interesdunak bere datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea izango du, baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Bere datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria <https://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa-haben/s23-edukiak/eu/> helbidean dute eskuragarri onuradunek.

Enpresa edo administrazio batek ikasleak egin beharreko ikastaroa lankidetzat hitzarmen bidez kudeatu eta/edo ordaintzen badu, Ulibarri Euskaltegiak ikaslearen datu akademikoak dagokion enpresa edo administrazioari jakinarazteko eskubidea izango du, datuen tratamendurako aipatutako helburu orokorrekin.

ARGIBIDEAK IKASTAROA

- * Nork bere datu akademikoak www.habe.euskadi.eus web-orrian ikus ditzake. Horretarako, HASI SAIOAn sartu eta idatzi erabiltzailea (nortasun-agiria letra eta guzti) eta pasahitza (aldatu ez baduzu, nortasun-agiriaren zenbakia letrarik gabe). Halaber, bide bera erabili beharko da azterketako matrikula egiteko, agiriak eskatzeko...
- * Irakasleak bertarutako orduak jasoko ditu. Justifikatu beharrekoa dagokion tokian jakinarazi beharko du ikasleak. **Salbuespenak:** 1)-IRALEko ikasle liberatuen kasuan, justifikanteak hartu egingo dira eta hilabetearen bukaeran bulegoan entregatuko dira. Ez bertaratu jarriko zaie. 2)-A1/A2 maila ikasten duten ikasleentzako dirulaguntzari dagokionez eta C1eko 16-18 urte bitarteko ikasleentzako dirulaguntzari dagokionez, ikaslea gaixotasun batengatik eskolaratu ez bada eta gaixotasun hori agiri bidez ziurtatu bada, ez da falta aintzat izango. Agiriak irakasleak jasoko ditu eta hilabetearen bukaeran bulegoan entregatuko dira.
- * Langabetuentzako taldea Ulibarri Euskaltegiak doan eskaintzen duen ikastaroa da. Talde horretan erritmoari eutsi ezin dion ikasleak euskaltegiaren ohiko talde batera pasatzean zehaztutako baldintzak bete beharko ditu.

ORDAINKETA

- * **Astean 10, 7,5, 6 edo 5 orduko ikastaroak eta C2 online:** bigarren epea abenduan ordaindu beharko da; urtarrian hasita, berriz, bigarren zatia otsailaren azken astean.
- * **Astean 20 orduko ikastaroak:** hiru hilabetea bi epetan ordainduz gero, bigarren zatia hasi eta lau astera ordaindu beharko da; ikasturte osoa ordainduz gero, bigarren zatia abenduan ordaindu beharko da.
- * **Udako ikastaroak:** epe bakarrean ordaindu beharko dira.
- * **Autoikaskuntza:** 9 hilabeteko ikastaroa bi epetan ordaindu daiteke, bigarrena abenduan. 3 hilabeteko eta udako ikastaroak epe bakarrean ordaindu beharko dira.
- * **Enpresak:** enpresak zuzenean ordainduko dio Ulibarri Euskaltegiari.
- * **Ikastetxeak:** taldea ikastetxeak kontratatzen badu, ikastetxeari ordaindu beharko dio ikasleak. Bestela, zuzenean Ulibarri Euskaltegiari.
- * **Enpresak/ Ikastetxeak:** euskaltegiak ez du matrikula itzulketarik egingo.

TITULUEN BALIOKIDETZA

	A1	A2	B1	B2	C1	C2
HABE	A1	A2	B1	B2	C1	C2
HAEE-IVAP			1. HE	2. HE	3. HE	4. HE
OSAKIDETZA			1. HE	2. HE	3. HE	4. HE
ERTZAINZA				1. HE Ertzaintza	2. HE Ertzaintza	
HEZKUNTZA				Irakasleen 1. HE	Irakasleen 2. HE	
					EGA	
HIZKUNTZA ESKOLA			Tarteko maila	Maila aurreratua	C1 Gaitasun maila	

TITULU OFIZIALAK (BALDINTZAK)

* **HABE.** Bi modu daude euskara-mailak egiaztatzeko:

- **EBALUAZIOA EUSKALTEGIETAN: A1 eta A2 mailak**

HABEk balio egiaztatzailea aitortzen die euskaltegi-tako ikasprozesuan zehar ikasleek egindako ebaluazio-jarduerari, betiere ezarritako baldintzak betetzen badira. HABEren irizpideak irakurtzeko: www.habe.euskadi.eus

- **AZTERKETA-DEIALDIAK: B1, B2, C1 eta C2 mailak**

Azterketarien gaitasuna (partez edo osorik) kanpo-ebaluazioaren bidez egiaztatzen da, HABEk antolatutako azterketa-deialdietan. HABEk hiru deialdi mota nagusi egiten ditu:

1.-Euskaltegi-tako ikasleen deialdia. Matrikula-eskubideak euskaltegian lortutako mailaren arabera eskuratuko dira. Ikasleak, ebaluazio diagnostikoaz gainera, gutxienez ebaluazio bat baldin badu, ebaluazio-dataren ondorengo bi azterketaldietan parte hartzeko aukera izango du: atalase-maila batera iritsi bada, maila horretan; atalase-maila batera iritsi ez bada, berriz, aitortu zaion mailaren azpiko atalase-mailarik altuenean. HABEren irizpide guztiak irakurtzeko: www.habe.euskadi.eus.

Ulibarri Euskaltegian, martxoko ebaluazio-datarako taldeak **90 ordu emanda** eta ikasleak **50 ordu jasoak** izan beharko ditu; ikastaro amaieran eta udakoetan, 50 ordu jasoak izan beharko ditu. Autoikaskuntzan, 40 ordu online, 4 tutoretza eta 8 talde-saio emanda, eta 30 ordu, 2 tutoretza eta 5 talde-saio jasoak. Aurrez aurrekoetan, astean 5 ordu baino gutxiagoko moduluetan ebaluazio bakarra egingo da, ikastaroaren amaieran. Jardun bikoetan, tutoretza duten ikastaroetan, astean 4 ordu baino gutxiago egingo da, ebaluazio bakarra egingo da ikastaroaren amaieran.

2.-Deialdi irekia. HABEren irizpideak irakurtzeko: www.habe.euskadi.eus.

3.-HOBE deialdia (ordenagailu bidez). HABEren irizpideak irakurtzeko: www.habe.euskadi.eus.

- * **BESTE AUKERA BATZUK EUSKARA-MAILAK EGIAZTATZEKO:**

- Gure ikasleak **Hizkuntza Eskolako** deialdi irekira ere aurkez daitezke. Matrikula otsailean izaten da.
- **IVAPek** hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiak ateratzen ditu EAEko administrazioetako langileentzat.
- **IRALEk** hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiak ateratzen ditu EAEko ikastetxe publiko edo pribatu baimenduetako langileentzat edo ordezkapen-zerrendetan daudenentzat.

PROBAK ETA EBALUAZIOAK

* Ikastaro/modulu bakoitzeko, ikasleak duen abiapuntuaren arabera, euskaltegian egin behar dituen **probak** eta HABEren Q87 programan grabatu beharreko **ebaluazioak** zehaztu dira, baita noiz egin behar dituen ere. Ikastaroaren hasieran emango da azalpena.

HABEREN ZIURTAGIRIAK

* Ebaluazio jarraituaren bidez edo gaitasun-probak gaitutuz mailaren bat egiaztatu duenak dagokion ziurtagiria eskuratu ahal izango du www.habe.euskadi.eus atarian norberaren sarbidea eta **Agiriak** aukera baliatuz.

ERREKLAMAZIOAK / EMAITZA BERRIKUSTEKO ESKAERAK

* Erreklamazioak/emaitzak berrikusteko eskaerak egiteko prozedura www.habe.euskadi.eus web-orrian zehaztuko da, dagokion Euskara-mailak egiaztatzea atalean, Erreklamazioak, kalifikazioak berrikusteko eskariak eta gora jotzeko errekursoak atalean.

DIRULAGUNTZAK

* **Ulibarri Euskaltegian** langabezian dauden pertsonen % **5eko** deskontua egingo diegu ikastaroetan, matrikula egitean langabezian egotea egiaztatuz gero. Halaber, aurreko ikasturteko ikasleei % **15eko** deskontua egingo diegu urritik ekainerako matrikuluan; beti ere, irailaren 15a baino lehen matrikulatuz gero (galdetu baldintzak). **Deskontuak 2. epean aplikatuko dira. **Etxebarrin erroldatutakoek Etxebarriko Euskaltegian galdetu beharko dute ikastaroen prezioa.*

Horrez gain, egunean bost orduko ikastaro trinkoa eskainiko dugu urritik ekainera langabezian daudenentzat, zerotik hasteko. Ulibarri Euskaltegiak doan eskaintzen duen ikastaroa da.

- * **HABE.** Euskaltegian maila bat gainditu dutenek edo HABEren egiaztatze-proben bidez titulua lortu dutenek HABEren ikasleentzako dirulaguntza deialdian parte hartzeko eskubidea izango dute, betiere HABEk ezarritako baldintzak beteta. Azken deialdietan oinarrituta, bi txanda ezarri dira eskariak egiteko (ekainean eta irailean). Informazio eguneratua: www.habe.euskadi.eus
Halaber, A1/A2 maila ikasi nahi duten ikasleei zuzendutako dirulaguntzak egongo dira, eta 16-18 urte bitarteko gazteek dirulaguntza izango dute C1 maila helburu duen edozein ikastaro egiteko; horien arabera prezioak gure eskaintzan, ikastaroen atalean. Dirulaguntzen inguruko informazioa eta baldintzak: www.habe.euskadi.eus.
- * **Zenbait udalek** dirulaguntzak ematen dituzte, esaterako, Basauri, Leioa, Getxo, Sopela, Mungia, Galdakao, Zalla, Balmaseda eta Santurtzi. Udalen laguntzak eskuratzeko baldintzak zein diren dagokion udalean galdetu beharko du ikasleak, eta aurkeztu beharreko agiria bulegoan prestatuko diogu.
- * **Bilboko Udala.** Bilbon erroldatuta dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegi homologaturen batean matrikula egin duen orok dauka aukera dirulaguntza eskatzeko. Orain arteko deialdietan oinarrituta, Bilboko Udalen dirulaguntzen baldintzak www.bilbao.eus atarian argitaratzen dira apirilean.
- * HABEk eta **Lanbide**k akordioa sinatu dute, eta horren bitartez diruz lagunduko dituzte hainbat euskara-ikastaro. Ikastaroa ordaintzetik salbuesten duen fitxa lortzeko, www.lanbide.euskadi.eus web-orriara sartu, prestakuntza atalera. Pantailan bertan agertuko da HABEko ikastaroetarako esteka. Ikasleak euskaltegian entregatu beharko du helarazi dioten inskripzio-orria. Orri hori aurkeztuta, ikastaroa ordaintzetik salbuetsita geratuko da ikaslea, eta Lanbidek prestakuntza-ordutzat kontabilizatuko ditu ikastaroko orduak.

INFORMAZIO OFIZIALAK JASOTZEKO BIDEAK

- * Oro har, informazio ofiziala HABEk argitaratuko du bere web-orrian: www.habe.euskadi.eus.
- * Ikaslea dagokion informazioa lortzearen erantzule izango da. Euskaltegiak bere esku dagoen guztia egingo du ikasleari informazioa lortzen laguntzeko; hala ere, **informazioa lortzea ikaslearen ardura da**.
- * Euskaltegiak informazioa ohar-tauletan eta web-orrian izango du. Halaber, posta elektronikoz bidaliko du bulegoa@ulibbarri.eus helbidetik matrikula-fitxan adierazitako helbidera.

KEZKAK, KEXAK ETA IRADOKIZUNAK

- * Iradokizun-orriak ikasgela guztietan zein sarrerako iradokizun-kutxaren ondoan daude, baita web-orrian ere www.ulibbarri.eus **Ikaslea** atalean. Kexak edo iradokizunak idatziz egin beharko dira.

TÉRMINOS Y CONDICIONES

Al matricularse, confirma que acepta los términos y condiciones aplicables a la contratación de los cursos de euskera que ofrece Ulibarri Euskaltegia y se obliga a su cumplimiento. Ulibarri Euskaltegia es una sociedad cooperativa con domicilio en Bilbao, en la calle Gardoki nº 3, 1º, con código postal 48008, teléfono 944162472 y CIF F48199673.

Matriculación: Para matricularse en nuestros cursos debe rellenar la hoja de matrícula y formalizar el pago correspondiente en los plazos y formas indicados. Se recomienda realizar la prueba de nivel en nuestra página web si no ha estado matriculado/a en un euskaltegi el año anterior o no tiene título oficial. En función del nivel a realizar se le asignará un grupo, aunque dicho nivel podrá modificarse según el resultado de la prueba de diagnóstico que se realizará una vez iniciado el curso, en línea con los requisitos establecidos por HABE.

Precios y formas de pago: Los precios, plazos y métodos de pago figuran en nuestra página web. En el caso de las matrículas online el pago se realiza mediante la pasarela de pago de nuestra página web. En el caso de las matrículas presenciales, el pago se realiza mediante tarjeta de crédito o débito, o mediante transferencia bancaria (Kutxabank ES86 2095 0000 74 5060001101)

5 % de descuento acreditando estar en desempleo al realizar la matrícula.

15 % de descuento por fidelización a alumnos/as del curso anterior matriculándose antes del 15 de septiembre (preguntar condiciones).

**Los descuentos se aplicarán en el 2º plazo. **Las personas empadronadas en Etxebarri serán informadas en el Euskaltegi de Etxebarri sobre los precios.*

Asignación de plazas: Consulte disponibilidad y tenga en cuenta que las plazas son limitadas. En caso de existir una demanda superior a la que el euskaltegi pueda atender, la asignación de plazas se realizará en función de la fecha de matriculación. El primer día del curso se le indicará el aula en el que se impartirá el grupo correspondiente. Ulibarri Euskaltegia se reserva el derecho de cambiar el/la profesor/a, así como de cambiar a un/a alumno/a de grupo a otro del mismo nivel y horario.

El número máximo de alumnos/as dependerá del curso y del aula asignada, respetando los criterios establecidos por HABE.

Inexistencia de plazas: En el caso de que no se le pueda asignar plaza para el nivel y horario requerido, se le puede apuntar en lista de espera si así lo solicita y se le informará de la disponibilidad de horarios alternativos y en caso de no ser aceptados, se le reembolsará íntegramente la cantidad abonada.

Cancelación del grupo: Ulibarri Euskaltegia se reserva el derecho a suprimir un grupo si no existe una demanda mínima de 9 alumnos/as para ese horario y nivel. En ese caso, se le informará de la disponibilidad de otros horarios alternativos, y en caso de no ser aceptados, se le reembolsará íntegramente la cantidad abonada.

Bajas: Ulibarri Euskaltegia le guardará al/a la alumno/a hasta el siguiente curso la cantidad proporcional al número de horas de clase no recibidas desde la notificación de la baja en secretaría para utilizar en otro curso. No se guardará cantidad alguna de las bajas causadas a partir de la mitad del curso.

Desistimiento por parte del/de la alumno/a: El/la alumno/a tiene derecho a desistir del presente contrato sin necesidad de justificación y sin penalización de ninguna clase hasta la fecha en la que se cumplan 14 días naturales desde el día en que se realiza la matrícula. Para ejercer el derecho de desistimiento, deberá notificar su decisión escribiendo a bulegoa@ulibarri.eus antes de que venza el plazo correspondiente. Podrá utilizar el modelo de formulario que proponemos. Rogamos adjunte copia del justificante de pago y la confirmación de la matrícula. Las devoluciones se tramitan en un plazo máximo de 10 días mediante transferencia bancaria. En el caso de que el/la alumno/a acceda a las clases antes de que transcurra el periodo de desistimiento, reconoce que está solicitando expresamente el inicio de los servicios, y si decide cancelar el contrato, deberá abonar la cantidad proporcional a las clases que Ulibarri Euskaltegia haya impartido hasta la fecha en la que haya informado de su deseo de cancelar el contrato. Además, el euskaltegi ofrece la opción de cancelar la matrícula sin penalización de ninguna clase 5 días antes del comienzo del curso. Fuera de los casos descritos el/la alumno/a no podrá cancelar el contrato.

Formulario de desistimiento:

Por la presente le comunico que desisto de mi contrato de prestación de servicios relativo a los cursos de euskera.

Nombre y apellidos:

DNI:

Fecha de contratación:

Fecha y firma:

Número de cuenta (para realizar la devolución):

Cambios de nivel o de horario: Se procederá al cambio en el nivel requerido o en el horario solicitado, previa aceptación. Los horarios pueden variar ligeramente para que las entradas y salidas se realicen de acuerdo a la normativa vigente y a protocolos definidos por causas sanitarias.

Deberes y obligaciones de los/as alumnos/as: Los/as alumnos/as deben mantener un comportamiento adecuado, respetando a profesores/as y compañeros/as. Deben asistir y participar en clase de forma que no sean un obstáculo para el adecuado ritmo de la clase. Deben respetar la confidencialidad de la información a la que tengan acceso durante las clases, así como de los materiales o códigos de acceso suministrados por el euskaltegi, comprometiéndose a no copiar ni divulgar los materiales de ningún modo. Queda prohibida la grabación de las clases por parte del alumnado, así como la toma de fotografías. El euskaltegi se reserva el derecho a denegar el acceso a las clases en el caso de que el/a alumno/a incumpla lo previsto en los presentes términos y condiciones.

Asistencia de los/as alumnos/as: El seguimiento de la asistencia del alumnado se realizará a través de la aplicación de HABE en www.habe.euskadi.eus. Se anotará la asistencia diaria, que estará actualizada a finales de mes.

Información adicional: La información sobre cursos, precios y modalidades, así como el modelo de matrícula está a disposición del público en secretaría y en nuestra página web. También se pueden solicitar mediante correo electrónico dirigiéndose a bulegoa@ulibarri.eus. El calendario del curso está disponible en nuestra página web, en el área del/ de la alumno/a. En el caso de que un curso presencial no pudiera impartirse total o parcialmente en dicho formato por causas ajenas al euskaltegi, las clases restantes podrán sustituirse por clases online que se consideren equivalentes o equitativas. Existen hojas de reclamaciones a disposición de la persona usuaria que las solicite.

Protección de datos: En cumplimiento de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos personales y garantía de los derechos digitales, y el Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo - de 27 de abril de 2016 - relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Ulibarri Euskaltegia S.C. con domicilio en Gardoki, 3 - 48008 - Bilbao. La finalidad del tratamiento de los datos es la gestión del alumnado y su proceso de aprendizaje y prestar los servicios de formación contratados de acuerdo al cumplimiento de la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis y el consentimiento prestado por la persona interesada. Los datos se conservarán permanentemente mientras sean necesarios o pertinentes para la finalidad mencionada o que la persona interesada no indique lo contrario.

Los datos serán comunicados a HABE conforme a lo dispuesto por la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación del Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis, para la gestión del alumnado de los euskaltegis y centros homologados para el autoaprendizaje del Euskera y su proceso de aprendizaje, para gestionar la acreditación de niveles de competencia lingüística de HABE, así como para la gestión de las subvenciones dirigidas al alumnado tanto por HABE como por los ayuntamientos y diputaciones forales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a fin de que todas estas administraciones públicas puedan recibir y entregar entre sí los datos necesarios para el control de las subvenciones a conceder, y evitar la sobre financiación.

Autorizo a HABE, salvo que se indique lo contrario expresamente, para que utilice mis datos para recibir información sobre las nuevas líneas de subvención y los diferentes programas y recursos en materia de euskaldunización de HABE y para la realización de investigaciones y encuestas de satisfacción encargadas por HABE. En caso de no autorizar, marcar con una X el cuadro. ☐

El Director o Directora de HABE será el órgano administrativo responsable del tratamiento. Es necesario el tratamiento para el cumplimiento de obligaciones legales.

Las personas interesadas tendrán derecho de acceso, rectificación y supresión, así como de limitación u oposición a su tratamiento en los términos señalados en la información complementaria.

Podrán obtener información complementaria sobre el tratamiento de sus datos en la siguiente dirección <https://www.habe.euskadi.eus/proteccion-datos-personales-habe/s23-edukiak/es/>

En el caso de que **una empresa o administración** gestione y/o abone el curso a realizar por el/la alumno/a mediante convenio de colaboración, Ulibarri Euskaltegia se reserva el derecho a comunicar los datos académicos del/de la alumno/a a la empresa o administración correspondiente con la finalidad general mencionada de tratamiento de datos.

INSTRUCCIONES

CURSO

- * Los datos académicos se pueden consultar en la página web www.habe.euskadi.eus. Para ello, entra en INICIAR SESIÓN y escribe el usuario (el DNI completo, con la letra) y la contraseña (si no lo has cambiado, el número de DNI sin letra). Se deberá utilizar el mismo procedimiento para realizar la matrícula del examen, solicitar documentación ...
- * El euskaltegi registrará las horas de asistencia. Lo que haya que justificar lo comunicará la persona interesada en el lugar que corresponda. **Excepciones:** 1)-Los/las alumnos/as liberados/as de IRALE entregarán los justificantes al/a la docente y se entregarán en la oficina a final de mes. Se pondrá no asistido. 2)-En el caso de la subvención a alumnos/as de nivel A1/A2 y en el caso de la subvención a alumnos/as de 16 a 18 años de nivel C1, si el alumno/a no ha asistido por alguna enfermedad y ésta está justificada, no se tendrá en cuenta la falta. Los justificantes se entregarán al/a la docente y se entregarán en la oficina a final de mes.
- * El curso para desempleados es un curso que ofrece gratuitamente Ulibarri Euskaltegia. La persona que no pueda seguir el ritmo en ese grupo deberá cumplir las condiciones establecidas al pasar a un grupo ordinario del euskaltegi.

ABONO

- * Cursos de 10, 7,5, 6 ó 5 horas a la semana y C2 online: la segunda parte ha de abonarse en diciembre; comenzado en enero, la segunda parte la última semana de febrero.
- * Cursos de 20 horas a la semana: realizando el pago del trimestre en dos plazos, la segunda parte se abonará a las cuatro semanas; abonando el curso completo, la segunda parte se abonará en diciembre.

- * Cursos de verano: tendrán que abonarse en un plazo.
- * Autoaprendizaje: el curso de 9 meses se podrá pagar en dos plazos, el segundo plazo en diciembre. El curso de 3 meses y el de verano tendrán que abonarse en un plazo.
- * Empresas: la empresa abonará el importe directamente a Ulibarri Euskaltegia.
- * Centros educativos: si el centro educativo contrata el grupo, el/la alumno/a deberá abonar el importe al centro educativo. Sino, deberá abonarlo directamente a Ulibarri Euskaltegia.
- * Empresas/Centros educativos: el euskaltegi no realizará la devolución de matrícula alguna.

CONVALIDACIÓN DE TÍTULOS

	A1	A2	B1	B2	C1	C2
HABE	A1	A2	B1	B2	C1	C2
HAEE-IVAP			Perfil 1	Perfil 2	Perfil 3	Perfil 4
OSAKIDETZA			Perfil 1	Perfil 2	Perfil 3	Perfil 4
ERTZAINZA				Perfil 1 Ertzaintza	Perfil 2 Ertzaintza	
EDUCACIÓN				Perfil 1 Docentes	Perfil 2 Docentes EGA	
ESCUELA DE IDIOMAS			Nivel Intermedio	Nivel Avanzado	Nivel de Aptitud C1	

TÍTULOS OFICIALES (CONDICIONES)

- * **HABE.** Hay dos formas para acreditar los niveles de euskera:

- **Evaluación en euskaltegis: niveles A1 y A2.**

HABE otorga valor acreditativo a las actividades de evaluación que el alumnado de los euskaltegis realiza en su proceso de aprendizaje, siempre que se cumplan los requisitos establecidos. Para leer los criterios de HABE: www.habe.euskadi.eus.

- **CONVOCATORIA DE EXAMEN: Niveles B1, B2, C1 y C2.**

La competencia lingüística se acredita (parcial o totalmente) mediante evaluación externa, en las convocatorias de exámenes de HABE. HABE realiza tres tipos de convocatoria de examen:

1.-Convocatoria alumnado de euskaltegis. Los derechos de matrícula se adquieren en función del nivel alcanzado en el euskaltegi. Si los alumnos y alumnas tienen al menos una evaluación, además de la evaluación diagnóstica, podrán presentarse en los dos períodos de exámenes posteriores a la fecha de evaluación: si ha alcanzado un nivel umbral, a ese nivel; si, en cambio, no ha alcanzado un nivel umbral, al nivel inferior más alto. Para leer todos los criterios y condiciones de HABE: www.habe.euskadi.eus.

En Ulibarri Euskaltegia, el grupo deberá haber **impartido 90 horas** para la fecha de evaluación de marzo y el/la alumno/a haber **recibido 50 horas**; al final de curso y en los cursos de verano haber recibido 50 horas. En autoaprendizaje se deberá haber dado un mínimo de 40 horas online, 4 tutorías y 8 sesiones grupales y haber recibido 30 horas online, 2 tutorías y 5 sesiones grupales. En los cursos presenciales, en los módulos de menos de 5 horas semanales se realizará una única evaluación, a final de curso. En la modalidad de aprendizaje mixto, los cursos que son con tutorías individuales, en los módulos de menos de 4 horas semanales se realizará una única evaluación, a final de curso.

2.-Convocatoria abierta. Para leer los criterios de HABE: www.habe.euskadi.eus.

3.-Convocatoria HOBE (por ordenador). Para leer los criterios de HABE: www.habe.euskadi.eus.

- * **OTRAS OPCIONES PARA ACREDITAR LOS NIVELES DE EUSKERA**

- Nuestro alumnado también puede presentarse a la convocatoria abierta de la **Escuela de Idiomas**. La matrícula suele ser en febrero.
- El **IVAP** realiza las convocatorias de acreditación de perfiles lingüísticos para el personal de las administraciones vascas.
- **IRALE** realiza las convocatorias de acreditación de perfiles lingüísticos para el personal de los centros públicos o privados autorizados de la CAPV o que se encuentren en listas de sustituciones.

PRUEBAS Y EVALUACIONES DEL EUSKALTEGI

- * Por cada curso/módulo, en función del punto de partida del alumnado, se han especificado las **pruebas** que se deben realizar en el euskaltegi y las **evaluaciones** a grabar en el programa Q87 de HABE, así como las fechas en las que se deben realizar. Se informará sobre ello al inicio del curso.

CERTIFICADOS DE HABE

- * Quien haya acreditado un nivel mediante evaluación continua o mediante convocatoria de examen podrá solicitar el certificado a través de la página web www.habe.euskadi.eus entrando en acceso personal, apartado **Certificados**.

RECLAMACIONES/SOLICITUDES DE REVISIÓN DE RESULTADOS

- * El procedimiento para realizar las reclamaciones/solicitudes de revisión de resultados se especificará en la página web www.habe.euskadi.eus, en el apartado Acreditar niveles de euskera correspondiente, en el apartado Reclamaciones y solicitudes de revisión de calificaciones y recursos de alzada.

SUBVENCIONES

- * **Ulibarri Euskaltegia** a las personas que están en desempleo les aplicará un **5 %** de descuento en los cursos, acreditando estar en desempleo al realizar la matrícula. Así mismo, se les aplicará un **15 %** de descuento a los/las alumnos/as del curso anterior en la matrícula de octubre a junio; siempre y cuando hayan realizado la matrícula y hayan abonado el primer plazo del pago para el 15 de septiembre (preguntar condiciones). **Los descuentos se aplicarán en el 2º plazo. **Las personas empadronadas en Etxebarri serán informadas en el Euskalategi de Etxebarri sobre los precios.* Además de eso, ofrecemos un curso intensivo de cinco horas diarias de octubre a junio para personas desempleadas, empezando desde cero. Es un curso que ofrece gratuitamente Ulibarri Euskaltegia.
- * **HABE.** Quienes hayan superado un nivel en el euskalategi o hayan obtenido el título a través de las pruebas de acreditación de HABE tendrán derecho a participar en la convocatoria de subvenciones para el alumnado de HABE, siempre que se cumplan las condiciones estipuladas por HABE. Según las últimas convocatorias realizadas, se han abierto dos turnos para realizar la solicitud (uno en junio y otro en septiembre). Más información: www.habe.euskadi.eus. Asimismo, habrá subvenciones dirigidas al alumnado matriculado en el nivel A1/A2, y los jóvenes de 16 a 18 años tendrán una subvención para la realización de cualquier curso que tenga como objetivo el nivel C1; los precios según las subvenciones en nuestra oferta, en el área de cursos. Información y condiciones de las subvenciones: www.habe.euskadi.eus.
- * **Varios ayuntamientos** dan subvenciones, por ejemplo, Basauri, Leioa, Getxo, Sopela, Mungia, Galdakao, Zalla, Balmaseda y Santurtzi. Para conocer las condiciones para obtener las subvenciones municipales, el/la alumno/a deberá dirigirse al ayuntamiento correspondiente; en secretaría le prepararemos el certificado a presentar.
- * **Ayuntamiento de Bilbao.** Podrán solicitar estas ayudas todas las personas empadronadas en Bilbao y que se hayan matriculado en algún euskalategi homologado de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Según las convocatorias realizadas hasta ahora, las condiciones para las subvenciones del Ayuntamiento de Bilbao se publican en la página web www.bilbao.eus en abril.
- * **HABE y Lanbide** han firmado un acuerdo mediante el cual, subvencionarán diversos cursos de euskera. Para hacerse con la ficha con la cual quedas exento/a del pago del curso, accede a la web www.lanbide.euskadi.eus al apartado de formación. En la misma pantalla te aparecerá el enlace para los cursos de HABE. Si te corresponde la ayuda, debes entregar en el Euskalategi la hoja de inscripción que te proporcionen. Presentándola, además de quedar exento/a de abonar la matrícula, te contabilizarán las horas de tu curso de euskera como horas de formación.

CANALES DE INFORMACIÓN OFICIAL

- * En términos generales, HABE publicará toda la información en la página www.habe.euskadi.eus.
- * El/la alumno/a se responsabilizará de obtener la información correspondiente. El Euskalategi hará todo lo que esté en su mano para ayudar al/a la alumno/a a obtener la información; sin embargo, **obtener la información es responsabilidad del/de la alumno/a**.
- * El Euskalategi dispondrá la información en los tableros de anuncios y en la página web. Así mismo, enviará la información por correo electrónico **desde la dirección bulegoa@ulibarri.eus a la dirección señalada en la ficha de matrícula.**

DUDAS, QUEJAS Y SUGERENCIAS

- * Las hojas de sugerencias se encuentran en todas las aulas, así como junto al buzón de sugerencias situado en la entrada del centro, también en la página web www.ulibarri.eus en el apartado **Alumno/a**. Las quejas o sugerencias deberán realizarse por escrito.